



2016ko APIRILAK 1,2 ETA 3. HERRI ZAHAR ANDRE BERRI JARDUNALDIETARAKO DISEINATU ETA GARATU DITUGUN DINAMIKAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUA.

GALDER PEREZ ETA IXIAR GARCIA.

Jardunaldi hauetan guretzat oso garrantzitsua izan da partaideak hasieratik izan duten harrera zaintzea eta elkar sorkuntza modu aberasgarri batean gertatzeko lagungarriak diren baldintzak zaintzea. Honetarako lan gunean zirkularra izatea, guk ematen genuen informazioa neurtua egotea beraien beraien kabuz esploratuz beraien hausnarketa propioak egiteko, etengabeko asistentzia, galdetuz eta begiratuz une bakoitzean izan zitzaizkiren beharrak. Gaitasun sortzailearen garapenerako hainbat proposamen egin genituen, ideien artikulazioa modu anitz eta artistikoetan ematera animatuz.



“IBILALDIA”

Behin parte hartzaile guztiak elkartuta, aterpearen inguruan dagoen Lakuari buelta ematea proposatu diogu parte hartzaileei, ibilaldian zehar bakoitzak beregan arreta jartzeko.

Nola nator? zer desio ditut topagune honetarako? zeren bila nabil?...galdera desberdinak eginez lantaldean lanean hasi aurretik norbanakoak beregan atentzioa jarri dezan. Aldi beren bakoitzari gaiarekin lotura duen elementu bat bilatu eta ekartzea eskatzen diogu, ondoren eginn behar genuen aurkezpenean, bakoitzak bere interes eta sentsibilitateak besteekin partekatu zitzan.



“TALDEAK EGITEN”


Taldeak egiteko dinamiko berezi bat sortu genuen. Lurrean barne lantaldeak aukeratutako 4talde desberdinak markatu genituen borobil baten barruan. Eredu bakoitzarentzat borobil zati bat eta 5garren gune berri bat sortu genuen definitu gabekoa. Honen asmoa parte hartzaileei guk proposatutakoaz gain beraien interesak esploratuz talde berri bat proposatzeko aukera emanaz.



Bakotzak bere gorputza talde batean kokatzeko aurretik bi ariketa proposatu genituen: Taldearen entzute kalitatea esploratzeko ariketa bat eta gure ideiak/pentsamenduak mugimendu bihurtzeko moduak esploratzeko beste bat. Ondoren bakoitzari gustoko zuen gune batean kokatzea eskatu genion ronda desberdinak eginez, galdera desberdinen laguntzarekin:

Non kokatu nahi duzu gai horren inguruan lanean aritzeko?
Non ez zinake kokatuko?
Non nahi duzu eta ez zara ausartzen?

Horrela mugimendu desberdinak eragin ondoren 6 talde atera ziren: 2 talde AHOTSA ETA HITZA.(BAT EUSKARA HUTSEAN ETA BESTEA GAZTELERAZ) TALDE BAT, KALEA/MEMORIA/GORPUTZA ETA TALDE BERRIA: ESPAZIO INTIMOA



“LAN SAIOA”


Behin lan taldeetan antolatu ondoren talde bakoitzari material desberdinak eskaini genizkien bakoitzean lantzen ziren ideiak jasotzen joateko: Rotuladoreak eta DIN2 bat. Elkarren arteko elkarrizketa pizteko eta ideiak antolatzen joateko talde bakoitzari txartel desberdinez bateriko sobre bat eskaini genion eta galdera desberdinak.

IRAGANA

- ✓ ¿por qué os parece importante o no esta mirada hacia atrás?
- ✓ ¿qué elementos han caracterizado la participación y presencia de las mujeres? ¿qué elementos hay en común entre todas las experiencias expuestas?
- ✓ ¿qué experiencias conocéis a nivel personal o experiencias de pueblos o asociaciones/grupos que os parezcan interesantes? ¿Qué hayan podido ser potencialidades de transformación en ese pasado?
- ✓ ¿desde vuestro ámbito de participación, qué podéis aportar a la construcción de este pasado?
- ✓ ¿qué elementos destacaríais del contexto y del marco normativo/legislativo?
- ✓ A menudo se recurre el pasado o a la historia para explicar la presencia de las mujeres en determinada prácticas culturales, ¿qué opináis de esta cuestión? ¿creéis que contamos con una mirada hacia el pasado que se ajusta a la realidad? ¿en qué sentido?

ORAINA

- ✓ ¿Cuál es el contexto actual, el entorno, en relación a la práctica o Eje de prácticas de las que estemos hablando?
- ✓ ¿cuáles son nuestras vivencias? ¿cómo está esta participación en los grupos en los que estamos? ¿Dónde están las potencialidades, los retos, etc.?
- ✓ ¿Cuál es nuestra situación como actor relacionado con esa práctica? ¿Cómo estamos, por qué, qué elementos positivos y negativos podemos encontrar?
- ✓ ¿qué potencialidades podemos encontrar para la participación de las mujeres? ¿y qué riesgos y retos?
- ✓ ¿qué elementos en común tienen las diferentes prácticas, lugares, de los que venís?
- ✓ ¿Qué papel están jugando los diferentes actores implicados? ¿Cómo influyen en la situación actual?
- ✓ ¿Se observan transformaciones en relación al pasado que dibujamos ayer? ¿en qué sentido?
- ✓ ¿de qué manera transforma / o debería transformar la participación de las mujeres la propia práctica o tradición?
- ✓ ¿hay nuevas tradiciones? ¿se construyen? ¿Cómo?
- ✓



LA TALDEETAN ELKARRIZKETAK DINAMIZATZEKO TXARTELAK



Zeintzuk baldintzak
ez dira lagungarriak



Zeintzuk baldintzak
dira lagungarriak

POTENTZIALA

+



PERTSONALA



TALDE/ERAKUNDE/ISTITUZIO



TESTUINGURUA



LEGEAK/ADMINISTRAZIOA

“IMPRO MATCH”

Lehenego egunean afal ondoren gune informalago batean inprobisazio saio bat landu genuen, modu performatiboago batean egunean zehar landutako hausnarketa eta ideiak, lantaldean, inprobisatuz eta umorez lantzearren. Hasieran guk prestatu genituen bi pista. Izenburua; inprobisazioa modua; nahasia, jarrai eta mixtoa.

komedia,opera,drama,“kulebroia”

Ondoren ikusle zirenek proposatzen zituzten izenburu eta inprobisazio mota desberdinak.



“BELARDIA GOIZALDEAN”

DINAMIKA ONIRIKO SORTZAILEA : Bigarren egunean lanean hasi aurretik gorputza berotzeko ariketa. Guztiok lurlean etzanda lurra izatetik belar izatera eta belar izatetik guztiok batera belardi izatera pasatu ginen narrazio gidatu baten bitartez.



“SUPERKONFERENTZIA”



Bigarren egunean lehenengo eguneko ideia, sentsazio eta adierazpenak esploratzeko ariketa esperimentalak. Lurrean marra bat irudikatzen da eta parte hartzaileei bertatik mugituz gero amildegi batetik erortzeko arriskua dagoela esaten zaie. Marraren luzeera partaide kopuruaren arabera irudikatzen da, bertan guztiok elkarren artean ahalik eta tarte txikiena izan dezaten. Behin bertan kokatzen direnean galdera desberdinak eginez, berrantolatzen joaten dira elkarren ondotik mugituz. Ariketa hau hitzik egin gabe, solik keinuak eginez proposatzen da. Honen intentsioa da partaideak lerroan zehar gune desberdinetan kokatzea da, pertsona kate desberdinak sortuz, adierazpen kate desberdinak sortzen joateko.

Adinaren arabera, ilearen luzeeraren arabera, eta kamiseten tonalitateen arabera antolatzeko eskatu genien gazteenetik zaharrenera antolatuz.

Behin berrantolatuak zeudenean bakoitzari esaldi labur bat eskatu genion gaiaren inguruan. Aurrekoak esaten duena entzunez bakoitzak bere adierazpena moldatu eta sortu behar du guztion artean superkonferentzia bat sortuz.

“EURIA ARI DU”

ORAINETIK ETORKIZUNERA-ETORKIZUNETIK ORAINERA DINAMIKA.

Dinamika hau etorkizunerantz irudikatzen ditugun desio eta ideiak adierazteko eta orainean egin behar diren pausuak adierazteko diseinatuta dago. Lurrean irudikatzen dira elementu desderdinak eta parte hartzaileak bertan zutik kokatzen dira batetik bestera mugituz. Elementuak honako hauek dira:

HODEIAK; ETORKIZUNA ADIERAZTEN DUTE

LURRAK;ORAINA

AINGURAK: JARRERA IDEIA ETA SENTIMENDU MUGIEZIN, ESZEPTIKO EDO ITXIAK.

UREZTAONTZIAK: EZKORTASUNA BAIKORTASUN ETA BELDURRAK ISPIRAZIO ETA IDEIA BIHURTZEN DITUZTENAK

TANTAK: ETORKIZUNEKO IDEIA LORTZEKO ORAINEAN EMAN BEHARREKO PAUSU BAKOITZA.



Hasteko taldea gune desberdinetan kokatzen da eta etorkizunetik ideiak proposatzen hasten dira. Beste eramuetatik galdera eginez etorkizunekoek ideiei forma ematen diote, kontutan hartuz besteek esaten dutena.

Dinamika honetan garrantzitsua da aktalari bat edo bi egotea bertan ateratzen diren ideia guztiak jasotzen joateko.

Etorkizunekoak proposamenak egin ondoren orainean daudenak ideia hauek garatzeko beharrezkoak diren pausuak azpimarratzen joango dira eta bitartean Ainguran eta Ureztagailuan daudenak galderak eta ideiak adieraziko dituzte guztien artean proposamenak lantzen joateko.

Behin taldekideek ideiak bota ondoren lekuz aldatzea proposatzen da.

“EURIA ARI DU”



“TIRABIRA”

Dinamika hau topagune honetarako diseinatutako dinamika bat izan da. Gune desberdinak irudikatzen dira lurrean borobil baten barruan, taldeak bertan kokatzen dira kolore desberdinetan eta pausuak emanez borobila zeharkatzen dute, pausu bakoitzean ideia desberdinak proposatuz.

Galdera honi erantzunez, ZER PROPOSATZEN DUZU ETORKIZUNEAN EMAKUMEAREN PARTE HARTZEA KULTUR ETA TRADIZIOETAN IKUSGARRIAGOA IZAN DADIN?


Talde bakoitza ideiak adierazteko modu anitzak ditu. Oraingoan bi aukera proposatu ziren, gaiarekin lotura zuten figura bat, talde, eragile...izan eta bertatik proposatu edo taldekide bakoitzak dituen interes eta desioetatik proposatuko zezaketen.

Bakoitzak bere esparruan bi geldiune dauzka, bertan gelditu ideiak proposatu eta besteak ikus ditzaten lurrean jarriko ditu paperetan idatziz, zer proposatzen duten eta nork proposatzen duen. Ondorengo eremura iristen denean, bere eremutik eremu berrira zer proposatuko lukeen idazten du beste bi geldiuneetan eta horrela bere eremura iritxi arte.

Iristean bi aukera dauzka azken bi ideiak botatzeko. Momentu horretan eremu guztietatik pasa ondoren azpimarratu nahi dituen ideiak erdialdean kokatuko dira. Ondoren borobilean talde bakoitzak bere ideiak besteekin partekatuko ditu.



“TIRABIRA”
PAUSUKA IDEIA BOTA
GUNE DESBERDINEN
LEKUTIK LEKURA.
(5 TALDEREKIN)



“IRRINTZI LIBERAKZIOA”

Azken egunerako prestatu genuen ariketa hau. Inguruan genuen lakuari ohiu bat botatzea proposatu genuen orainean eta etorkizunean behar edo deuseztu behar genuen hori ohiukatuz. Bestalde lagungarria iruditu zitzaigun esplorazio prozesuari amaiera emateko ohiu liberatzaile bat botatzea.



“PRENTSATZEKOA”

Dinamika honetan benetazko prentsaurreko baten simulazioa egiten da. Aulkiak, mahaiak eta mikroak jartzen dira eta taldeka eskatzen zaie parte hartzaileei bertan jartzea eta inprobisatuz kontatzea zer egin duten etorkizunean. Kazetariak galderak egiten doaz, beti positiboan eta modu inspiratzaile eta zirikatzailean, Hau da, ideiak botatzen dituzten prentsaurrekoa ematen dagoen taldeak ideia osatu, garatu eta proposatu dezan.

Dinamika honen aurretik barne lantaldean galdera desberdinak definitu genituen aurreko egunetan landu genituen hausnarketa eta ideia eremuak kontutan hartuz.

Galderak gai hauen inguruan antolatu genituen.

Zer gertatu da denbora tarte labur batean, Miarritzeko topaketa ondoren?
Zer eta nola landu duzue Emakumeen parte hartzea ikusgarriagoa izan dadin?
Zer eta nola landu duzue ekintza konkretuak garatu ahal izateko?
Zer eta nola lortu duzue saretzea ?



**PINK
GORILLAS**

2016ko Apirila. Galder Perez eta Ixiar Garcia